



M. Lasa

**ARALAR'EKO
MIKEL DEUNA
ZAINDU EGIZU
EUSKALERRIA**



“BATUAN” EZIN GARBI IDATZI?

Igaro dogun Urrilla'n amabi'garren urtea, Durango'ko Tabira menditar taldeak eta Euzkadi'ko Menditar Batza'ren babespean, antolatu eban Durango aldeko mendiak zear, laterriko menditar zar edo berrogei urtetik gorako nai eben guztientzat ibillaldi neurtu apain bat eta, gu be aintziñako mendigoizale purrukatuak izanik, orren tartean izan gintzazan, izter errenduta guzti.

Ikustekoa zan izan be, zortzireun eta geiagoko mendi-zale taldea, Urkiola'n urten de Urkiola-ganean (1.009 neurkin) besteko aldeko Azuntze iturri'tik bera Atxarte'rako bidean, baiña, orraiño eldu baiño len Aitz-txiki ta Ailluitz bitarteko Artola mendi-lepotik Sagazta auzunera jatsiteko. Urren jarraitu zan, Mendiola auzunetik Larringan'go aixerrota ondotik, “Santikurutz” gaiñetik/ Durango'ra sartzeko lau ordu ta geiako ibiltaldia egin ondoren.

Aipatu dogun oztetza, zortzireun eta geiago, laterri guztikoa zan; berrogeita amar edo irurogei katalandar, balenziarrak, madrildarrak, kantabritarrak eta abar eta, beste geienak euzkotarrak. Baiña nork esango leukan, pozen katalandarrak ikusi genduzan, euren begien aurrean ikusiten eben ikuskizun zoragarriakaitik, ona etorri baiño len ez ebelako uste ain menditarte zoragarriak Bizkaia'k eukiko ebazenik. Benetan pozik itzuli ziran ikuskizun da euzkotarron txereagaitik.

Ibiltaldi apain ori amaitu genduban guztioi emon euskuezan sari polit gomutagarriak eta, orreikaz batera idazkiño edo liburuska mordo bat, Bizka'i'ko erri guztiai buruz idatzitakoak, euzko-erri guztion edesti eta gauza jakingarrienak dakarzena, argazki txiki baiña apain eta guzti.

Idaztiño orreik, 15 neurki-eunen luze ta 10 zabalera eta, 2 lodiera, danak gazteleraz eta euskeraz idatzita. Beste aunditxuago bi gezteleraz idatzita. Danon idazpurua EZAGUTU da, urren beratan datorzan erriak, esan nai dau.

Aurtengo udan ea illa bi egin dodaz etxetik ea urten barik neure iztar zauritu onegaitik eta, irakurri barik auki nituan idaztiño orreik irakurriteko aldia ta geiago izan dodaz eta, adikunez guztiak irakurri be. Esan dogunez gazteleraz idatzia dirala esan leiteke ta izkuntza ortatik euzkerara itzulita, baiña, zelango euzkerara?, h'z jositako “El batuan”. H'ak bakarrik izan ba'ziran ez gintzazan ainbeste ernegatuko, baita iñoz bere idatziko ez dogun izki orrek sua emoten dauskun, zertatik datorren edo zergaitik sartu eben dakigulako, baiña, bai idaztiño orretan darabilen euzkera nastuak, euzkera mordoilloak. Ez dago orrelako euzkera zikiñik idatziteko eskubiderik eta, ainbat gitxiago izkuntza bitan idatziten danean eta, geien bat atzerritarren onera datorzanean, zabalkunde lez emoteko diranean. Zer esango ete eben katalandarrak, balenziatarrak eta abar euzkera mordollua ikusitarakoan?, izkuntza nastu ori izango zala guk pozik eta pizkat arrokeriz aipatutzen dogun enda-izkun edo izkara “nazionala” dala edo, gazteleraren izkalki bat geiago dala? Tamalgarria benetan gure izkuntza txukunaz jazoten dana.

Idaztiño orretan berean ikusiten danez “BIZKAI'KO FORU ALDUNDIA'k aterakoak edo ordainduak izan bear dabe. Orrenbesteraño aztu ete da gure, bai gure, Aldundia, geien bat abertzalea, jeltzalea ta beraz Sabindarra, gure Irakasle Sabin'ek adierazo euskun euzkera garbi txukunaz? Berak sarritan esan eban da adierazoten emon, euskerak ez eukala zetan erdel itzik artu, edozein izkuntza bear dan lez euzkeralduteko aberastasunik asko edo naikoa eukelako.

Euzko Jaurilaritza, Euzko Aldundiak, Euzko Udalak, beste iñork baiño geiago, eta euzkotar guztiok, beartuta gagoz euzkera gure izkuntza, eutsi, ikasi, irakatsi ta goralduteko, baiña erriko euzkera, erriak berak dabillen euzkera al dogunik geien landuta, garbi ta ulerkorra erabilliaz eta ez erdel itzez nastuta.

GUDEA-BAKEA-OTAN-EUSKALERRIA

Ba-dago munduan bake-gurea, baiña bakea egitea edo bakearen ziurtasun apur bat lortzea ez da gauza erreza gure aldi onetan.

Eta iñok bakea, zuzentasuna ta itzaltasuna, bear ba dauz, bide ori bear dauana gure Euskalerrria da.

Aspaldiko iru barrik bultzatzen gaitue idaztera: Ginebra'n Laterri Batuetako eta Errusia'ko agintariak egindako batzarrak eta Otan bai Otan ez eztabaideak ta laster izateko dan ertixi-batzeak. Bakea egiteagaz izkillu-arloko norgeiagoa batzen da.

* * *

Izkilluen munduan euskaldunak daukagun ikasia ondo garratza da: Gura ez genduan eta bearrezkoa ez zan guda aretara sartu ginduezan eta gure gudariak adoretuak izan arren, izkilluen urritasunak guda ori galazo euskun. Orre-lan, izkillu-arloan, arerioak askoz orniduago egozan gu baiño eta orduko laterrik izkillutsuenak ebezan lagun-tzaille. Gogoratu Gernika'ko bonbaketan izan ziran lergaiak eta egazkiñak.

Eta izkilluak lortutako menperatzea askatzeko, aldi estu ta larrietan ETA sortu zan, izkilluz indartsuagoo zanari beste era bat artuta erantzuteko, eta or jarraitzen dau jokabide orrek, naizta aspaldian isiltasun apur bat lortu izan, eta alkar-izketan diarduela zurrumurrua zabaldu.

* * *

Munduko izkillugintzaren arazoan euskaldunak jokabide orren aurka jokatu bear dogu, ori geure barruak eskatzen dauskulako, eta baten batek barruan bake-

zaletasun au asmatzen ez ba'dau, jokabide zur lez guk orretan zeregin gitxi daukagula munduko laterri aundien parean jakin begi.

Mundu guztian dago urduritasun au, izkillugintzarako eralketa larregi egiten dalako sortzen dan urduritasuna eta ainbeste aberri gosez eta aurreratu eziñik ikusteak emoten dauan urduritasuna.

* * *

Gure bake-bidea beti izan da alkar-izketaren bidea eta gudak alboratzekoa eta ortik jarraitu bear dogu.

Eta zer esan OTAN'era sartzeari buruz? Gu OTAN' era sartu ezker, ango izkilluen indarra geuganduko gendukela? Ez ete dagoz bertan gure betiko arerioak izkilluz ondo jantzita? Eta iñoz gure lagun izan diranak be ez eta dagoz orrei eskua emonda? Zer itxaron geinke ba, OTAN orretatik? Eta Varsobia'ko Pakto orretara begiratu ezker, itxaropen gitxiago dago.

Sartzea ba litz be, ez leuke gure gurariak izan bear, beste batzuk naita-naiez sartu gaituelako baiño. Beti lez Madrid'en eta Paris'en gurariak azpiratu gaituela. Dana dala, gure eritxia emoteko erea danean argi agertu daitela arazoa.

Gure urtenbidea ez dira izkilluak eta gudarako alkar-tzeak. Orretan gu baiño aurrerago doazenak ba-dagoz. Guk zuzentasunaz eta bakezko jokabideakaz ekin bear dogu.

Lar erromantikua edo ames-bidekoa dala ori? Bizirik irautea be ez ete da ames bat gutzat?

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar

..... kалан (auzoan) zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-

txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

MAI-INGURUA: AGIRRE

Joan dan Udabarrian, Jose Antonio Agirre gure lenengo Lendakaria dala ta "Tele Bista"n izan zan mai-inguruan, Xarriton jaunak gauza jakingarriak esan eusku-zan:

Xarriton bera Seminarioan zala, oraintsu illa dan Laffite apaizak, euzko abertzaletasunaren garra "JEL"en bitartez sartu eutsela seminaristai. Eta sugar orrek bultzaturik, Jose Antonio Agirre ikustearren eta beragaz berba egitearren Paris'eraño joan zirala. (Ordurako ez ete egoan "anti JEL" a sartuta gure Ego Euzkadi'an?... Euskaldun zirala baiña ez fededun agertu bearra?..)

Orain ez dakiala Ardantza naiz beste Lendakari batengana joango litzakezanik. Egia dala Alderdiak, klandestinidadetan, Franco'ren aldian, Egoaldetik Iparraldera bidaltzen eban zabalkundea gazteleraz izanik, Partiduak ez eukala erakarririk eurentzat. (Gure zoritxarra: frantze-sa ta espaiñera euskerea baiño lenago edo bakarrik erabiltea. Nik neuk, Laffite jauna, frantzesez sermogiñan eza-gutu neban: zein beste izkuntzatan egingo eban ba, Ange-lu'ko Donibanen?... Krutwig jaunak be, Ipar Euzkadi'ra iges egin ondoren, bertatik, "Vasconia" erdera utsez ida-ziriko liburua, ez ete jakun ona eldu?..)

Eta azkenik, nireztat barri-barria izan zan beste au entzun genduan: Don Resurreccion Azkue, Euskaltzain-burua, bizitzako bere azken-urteetan, bildurturik egoala Euskaltzaindiko "gazte boltxebikeekin". (Gudara ez joa-tearren, izkuntzen zertifikaduak lortzen ibilitako 20 urte-dun aleman euskalduna, Don Resurreccion'ek ber-berak erdi illik egoan Euskaltzaindia suspertzeko ez eban ba sar-tu?)

Oraintsu Krutwig'ek "Aurrez-aurre" telesailan jakina-zo euskunez, Don Resurreccion'eri emon etsozan pozak: Don Resurreccion'ek Krutwig'en esanez, iru "Aita" sartu zituan Euskaltzaindia'ra: Lekuona "Zarra", Villasante eta Laffite.

Olantxe dira kontu zarrak: bizi, ikusi ta ikasi.

MAITENA'K

ESKUTITZ AGIRIA "ZER"EN ZUZENDARIARI

Olazar jauna, Ezdakitz eskeintzen deutzudana onartua izango dan. Gure gaztedi euskalduna buru argidun ta gogoetariak aldizkari "Zer" au ontzat artu ta irakurri daian Batzar Nagusi Batikano Bigarren eragille ta argi-tzaillerik nagusienetaraikoa dan Josu Lagundi'ko Karl Rhaner'ek idatzi eban idatzi garrantzidun bat euskeratzea asmau dot. 158 orrialdeko liburutxu onen izena "Arazo bat daukat" da. Zetarako argiratu eban idatzi au? Gazteai laguntza emoteko.

Rhaner'ek ardura andiz etorkizunak sinismena gorde-teko arrisku gaxak eukingo ebezala ikusi eban, ta augaitik lagundu gura eutsen *erlijioaren kontrako asmakeriak aur-keztu*, jakintza aurreraldi ta bizibide erosoko gure egunotan. Zelan sortu zan idatzi-liburu ori? Uri andi baten abade-jauari gaztediaren pastoralgintzan ziarduala, Aita Rhaner teologu ospatsuari eskutitzak bialdu egioezala emon eutsen aolkua.

Teologu idazle onek gastiengandik arturiko eskutitza ipinten eban bere liburuan ta ondoren erantzun egokia emon.

Nire idaz-lan euskeratua labur izango da. Orri lauren zabaldi bikoz naikoa izango dala uste dot, gaiak berez sakonak izanez, irakurle gazteak gogartu astiro ta ausnar-tu bear dabez-eta.

AITA LETONA'K

Pozik artu ta argitaratuko doguz Aita Letona'ren lanak, esandako baldintza orreik beteten dirala eta gaz-teentzat izan arren, elduai be ez dautsela kalterik egingo uste dogu, batez "teologo" ain aundiarenak eta gaurko giroari buruz diran ezkerero.

ZUZENDARITZAK

IDAZKI AGIRIA (ENBEITA'TAR BALENDIN'ERI)

Agur, Balendin, aspaldiko adiskide ori:

Ostetza aundiak ibilli oi diran jai-aldietara joaten enok zalea, baiña nozean bein aroa aldatzea norbere izakerearentzat eta gogoarentzat ona izan daroanezkero, Urril'eko azken-asteleenean Gernika'n izan nintzoan ikuskizunak egiten.

Baserri-lanetarako lanabes, tramankulu ta tresnak, guztietariko ortuariak ugari, igali ederrak, lora-mueta koloretsu ta politak, esku-lan egokiak, gasta, ezti, txakolin ta abar ikusi ondoren, bertsolarieri entzuten egon bagarik ezin neitekean alde, ezegaitik bere. An neiegoan, ba, adidi, zeuon bertsopakaz zelako aapaldiak biribiltzen zenduezan aditzen. Bai ik, bai ire seme Jon'ek eta bai Iturri'k ederto bete zenduen zeuen egitekoa; baiña, ez yaustien gogoa bete ire bertso batzuk. Eneioan pozik alde, ba, ire azken-bertsoak entzunda. Ez onak etzoazalako, ik abesteko egokiak etzoazalako baiño.

Batasuna goresgarria yoagu izan be-ta, aspaldiko ire ekitaldietan batasunari abesten dautsozak neurtitzik ederrak, adiskide. Batasuna, alkartasuna ta erriarentzat eta euskerearentzat unuragarri diran beste *tasun* guztiak artzen yuezak ontzat entzuleak eta txaloe ugari izan ire bertsoak be; baiña eure kolkora astiro begiratu izan ba-oan, ez ete oan uste izango eu etzazela gei batasunari buruz abesteko ez egin izan oazan bertsoeri egindako txaloak onartzeko?

Ez auat mindu ez atsekabetu gura Balendin, beti izan aut gogoko adiskidea-ta. Baiña, edonor ez dok izaten,

gero, egokia edozer esateko; eta lerro oneik eure onerako izan daitekezalakoan zuzentzen dauadaz. Zintzotasunez jokatu gura baldin ba-dok, Balendin, i eu etzaz, ba, nire eritziz, egokia, batasuna aldarrikatzeko.

Moltzorik audienagaz batu bearra yoagu, ba, batasuna ondoen, ariñen eta egokien egiteko. Baiña ik, alde egin oan moltzo anditik eta askozaz be gitxiago direanen artetik diarduk, orain, Euskalerrriaren eta euskerearen onerako batasunera deiez.

Sakon-sakon sartu adi eure barruan, gizona, eta gozartu egik ondo benetako batasun-bideetan egin izan oan larrapastadea eta, bear ba'dok, okerreko bidea artuaz batasunari ta Aberriari egin izan dautzakan kalteaz damaturik, barriro biurtu einteke batasun-bidera. Ala, norbaitzuen esamesen bildur az? Leenagoko adiskideak besoak zabalik gaukazak, ba, benetako batasunaren Alderdian, eu anaitasunez besarkatzeko.

Eta, eutsi ta zabaldu Balendin, zeuon aitak, leengo ta oraingo bertsolaririk onera genduanak, Muxika'ko "Urre-txindorrek" eutsi eta zabaldu yobanez, morduillukeri ta naasteak itxita, Bizkai'ko euskera ederra, beste euskalkiak baizen ederra yoagu-ta; ganera, beti erabilli izan doan euskalkiaz milla bidar obeto azaldu einkez eure burutapenak.

Agur, ba, adizkide, urrengorarte.

AURRAITZ

KATUA ALA DEABRUA?

SAGARDUI izenez ezagutzen eben IRUBIDETA-
RRAK erritik urran, mendi barrenean egoan baserri etxea,
obeto esanda basetxe zaarra izandakoa jauregi eder bat
izatera aldatua.

Baiña basetxe zaarra jauregi biurtzea goizetik gabera
egin leiken lana ez dala danok ondo dakigunez, aldatza-
llearen ibillerak jakin bearra dogu, SAGARDUI etxe
dotore ori da ta ipuin antzeko jazokun au amaitzen da
tokia.

I. Erdi jausita, sasiz inguratuta, goian saguzarrez,
beian arratoi, saguz edo sugez nai bestelako pizti txarrez
beterik egoan etxe zar bat zelan aldatu lei baserriko jaure-
gi eder, apain eta txukun izatera?

Itaun auxe egiten eutsen alkarri Irubidetako bizi lagu-
nak SAGARDUI basetxe zaarra "jauregi" bikain eginda
ikusitakoa ebenean.

Ona emen zergaitik eta zalan izan zan baserri etxe
zaar baten jauregi izatera aldatzea.

Esteban Arbide zan SAGARDUI baserri etxea leengo
sasi, pizti ta zikinkeri guztiak kendu ondoren, zeatz barriz-
tau ebana, jauregi eder eta txukuna izatera aldatuaz.
Sagardui eta bere alboan egozan Elordui eta Bustindui
baserriak Madrillen euken euren ugazaba edo jaubea.

Urtero jaubeok eskatzen eben diru pilloa, Sagardui-
koak beintzat, ezin eben ordaindu eta andik beste leku
batera joan bearrean aurkitu ziran.

Joxe Martin Arbide zan Esteban'en aita eta anai bat
eban aspalditik Ameriketara, ango Iparraldeko Nevada ize-
neko lurraldean, ain zuzen be Reno uri ospetsuaren ingu-
ruko mendietan, beste euskal- seme asko lez artzaintza
lanari lotura.

erriko borbaitek idatzita edo jakin eban Joxe Martin
Arbide'ren anai orrek bere anaia eta anai orren sendia larri
ta estu samar ebilzala eta eskutitz labor bat egin eutson:

"Jose Martin Abide-Irubideta Agur anai maite: Estu
eta larri abillala jakin joat. Iri laguntzea nai juat. Bialduik
ainbat lasterren eure seme Esteban onaxe, neure ondora,
emen ditudan etxe, abere ta beste ondasun guztiak berairi
laga dagiodazan. Osasunez ondo ez nabillenez eta gaiñera
mutil zarra, daukadan guztia berari lagatea erabagi joat.
Zenbat eta ariñago bera ona etorri, lenago beteko joat nire
asmo ori. Agur, ba, Joxe Martin. Gorantziak ire emazte ta
beste senide guztiak. Besarkada bero bat eure anai, zar,
ANDRES'ek".

Eskutitzagaz batera Renorañoko bide txartela, bere
loba Estebanentzat, eldu jakon Joxe Martin Arbideri. Asi
barriak egozan egazko ibillerak eta orretaiko bide txartela
zan Andresek Ameriketatik Estebanentzako bialdurikoa.

Bere emaztea laugarren umea laster izateko eta bere
guraso naiko zaarrak errian itxi bearra zan Esteban giza-
joa geien mintzen eban oldozpena.

Baiña osabearen laguntza be bearrezkoa zalako, arin
atara ebazan ibillerako bear zituan agiriak eta uste baño
lenago senide guztiak mosu bero bana emonik, Ameriketa-
runtz abiau zan, baita egun gitxi igaro orduko Reno urira-
ño eldu be.

Osaba Andres bera joan zan Renoko aideportura
lobeari itxoitera. Eldu ta bertan biak Andresen bizilekura
jo eben. Arin konturatu zan Esteban bere osaba Andres
etzala bere erri Irubidetan danak uste eben artzain txiro
gizajo bat.

Ez. Andres Irubidetako lagun guztiak baño aberatsa-
goa zan. Bere bizi-lekua, txalet edo jauregia izan ez arren,
etzan Irubidetarrak uste izango eben artzain borda edo
txabolatxo bat.

An erderaz RANCHO izenez ezagutzen ebezanetako
bat zan eta ez txikienetarikoa *Rancho* edo bizileku orren
inguruak lurralde zabal ta edatsuak ziran, bai beeko solo
lauetan, baita baso, oian edo leku aldapatsuetan. Bertan,
be-aldeko landetan jaten ebizan bei, txal eta ixkuak eta
gorago baso mendietan ebizan ardi eta aunts taldeak zen-
batzea etzan ordu gitxiko zeregiña izango, guztia arrituta
lez ikusten eban Estebanentzako. "Zer uste uan, ba ar-
tzain gizajo bat baño ez nintzala?"

Lenengo urtietan, bai, orixe izan nintzoan ardiak eta
beiak zaintzen ibilli bearra izan nebana.

Baiña gero lurralde guztion jaube zanak, beragaz
zuzen eta zintzo ibilli nintzalako edo, il aurretxoan neure-
tzat itxi juazan bere etxe, solo, mendi eta abere taldeak,
diru etxeetan eukazan diruak bere senide batzuen artean
zabaldur edo banatuaz.

Bear bada diru-etxeetan gordeta eukana ondasunetan
euskana baño asko be geiago zuan, baiña niri egin eustan
"erregaloo" ez zuan izan balio bako uskeritxo bat.

Eta neu jabetu nintzanetik abere taldeak geitu egin
dozak eta urtero saltzen dodazan abere mordoak diru poli-
ta emoten jeustek", esaten asi jakon aoa zabalik entzuten
eutsan lobeari, Irubidetan artzain txiro gizajotzat euken
Andres Arbide, eldu ta egun batzuk geroago.

Osaba Andresek iñean guztia egia itzatekotan eta ondasun danok beretzat izango ba ziran goizetik gabera *indiano* aberatsenetako eginda aurkituko zan Irubideta erritxotik egun batzuk lenago eldutako Esteban Arbide baserritarra.

“Eta oindiño ezduazat erakutsi mendi artean ondo zainduta daukadazan zaldi eta beorak” esaten jarraitu eban osaba aberatsak. “Eta dana eure izenean ipiñi juat notari-etxean.

Ire aitari eu ona arin bialtzeko esaten egin neutsan eskutitza bidai edo korreoan ipiñi eta bertan asi nintzoan auzi ori ardura osoz zuzentzen eta eragozpen aundirik izan ez dodalako i eldu intzan egunerako dana amaituta neukan, Jainkoari eskerrak.

Euk guztia ontzat artzen dokala adirazteko paper eta agiri guztiak izenpetu bearko dozak urrengo Reno uriraño jatsiten gareanean edo al bait ariñen beintzat.

Orrela nire eginbearra ondo amaitutzat emongo juat eta eu geratuko az *Rancho* aundi eta aberats onen jaun eta jabe bakar.”

Amesetan egoalakoan, Estebanek ezin eban siñistu bere osaba zaarrak esaten ebana.

“Osaba Andres’ni lo gozo baten, ames gozoan nago, ala zuk esan deustazuzan kontu guztiak egi biurtuko dira?” itandu eutsan Estebanek.

“Euk ikusiko dok ni olgetan ez nabillelela eta notari-etxean agiri eta paper guztien azpian eure izena ipiñi ondoren eu izango az lur guztion eta berton dagozan ondasun guztien jaube bakarra.”

Eta andik egun gitxira Renora jatsi ziranean, notari-etxean Esteban Arbidek agiri eta paper guztiak izenpetu zituanean Andres osabeak emondako Rancho eta lurralde guztien ugazaba lez geratu zan, baita bertan egozan ardi, bei, zaldi eta bestelako abere eta ondasun guztien jaube lez be.

Urte batzuk geiago luzetu eban Jaungoikoak Andres Arbideren bizitza, baiña azkenean aspalditik beregan ebanz ondoezak eta gexoak menperatu eben ogetamar urte leenago IRUBIDETA erritxotik Nevadako lurraldetara, beste euskal-seme asko lez, artzaintza lanetara lotzeko eldu zan mutil zarra.

Andres il eta laster asi zan Esteban bere errirako itzuler gertuten.

Alan da guzti be osaba Andresek itxi eutsazan etxe, abere eta ondasunak al bait ondoen saldu bearko ebazan eta orretarako erosle aberats bat aurkitu bearko. Guzti ori etzan erreza eta bi edo iru urte geiago jarraitu bearra izan eban olako erosle bat azaldu jakin arte.

Azkenean inguruko lurraldeen jaubeak erosi eutsozan abere taldeak eta Reno urira lentxoago eldutako gizon dirudun bat izan zan lur eta basoen erosle.

Olan diru mordo polita lortu eban Esteban Arbidek. Eta bere ogasunak saldu ezkeru bertan zetan jarraitu ezebanez, ainbat ariñen Irubidetara biurtzea zan bere ardura bakarra.

Diru etxean ipiñi zitun ogasun-salketan artutako diru guztiakn al bait ariñen Bilboko diru etxe batera dirutza guzti ori bialtzeko agindua emonaz.

Eta oster a guztiok amaitu ebazanean, bere etxekoentzat bezuza edo erregalo batzuk erosiaz, artu bere egazkiñerako bide-txartela eta... Irubidetara.

II. Aduana edo muga-etxeetan ez eban izan traba edo eragozpen aundirik. Renoko Rancho aretan bere osaba zanak antxiñatik eukazanetaiko katu ederrena zan bera Ameriketara joan da gero jaio zan alabatxoarentzako eroian bezuza edo erregalo berezia eta pizti ori izan zan muga-etxeetan aurkitu eban oztopo bakarra, baiña muga-etxeko zerga-dirubatzellei txanpon batzuk emonaz igaro zitun katu orrek be bideko muga guztiak.

Eta eldu zan alako baten Irubidetaraño, bertatik zortzi edo amar urte leenago bere osaba Andresek deitura joan zan “indianoa”, ain zuzen be Esteban Arbide. Oindiño Ipar Amerikan zala, bertatik bialdutako diruekaz Sagarduiko etxe zaarra barrizatzen asita egoan, eta ez asita bakarrik barizatze lanak oso aurreratuta be ba egozan. Orretarako etxe-gintzan geien ekienak eroan zituen Irubidetara Esteban Arbidek bera Ameriketatik eskutitez aginduta.

Etxe eder eta apaiña iruditu jakon Estebani bertara eldi zanean eta egun asko igaro orduko sendi guztia SAGARDUI jauregira joan zan bizitzera.

Abade jaunak bedeinkatu eban etxe barri ederra, bera gela, eskaratza eta leku guztietan ur bedeinkatu ugari ixuriaz. Oindiño Ameriketan egoala bertatik bialduriko diruagaz Sagarduiko etxe zaar eta lurak Madrillen bizi ziran jauntxo ugazabei erosiak izan zirala esan bear dot, basetxe orretan jaioa zalako etxe orren eta inguruko solo ta basoen jaube izatea baizan Estebanek antxiñatik buruan erabillan gogapenik garrantzitsuena.

Ugazabok eskatu ebena emon eban Estebanek, larregi eskatzen ebela jakin arren. Orain bere asmoak eta gogo guztiak beteta ikusten zituan eta pozik egoan bere sendiagaz Sagarduiko jauregian bizitzen.

III. Iru urte ba dira Esteban bere baserri-etxe barri edo jauregian bizi dala. Bere aita zaarra, Joxe Martin Arbide, laster il zan, baiña oso pozik bere semea eta sendia aberastuta ikusita. Enda oneko beiak eta ixku eder bat ba ziran Sagarduiko kortan. Eta an ebillen arro arro bere

IPUINAK

bustena tente ebala Estebanek bere alaba txikienari ekarri eutsan katu aundi ederra be.

Amama zaarrak ezin eban ikusi be katu ori, janariak gordeten ziran gelatik sarritan katu orrek okela zatiak edo gaztai zatiak ostuten eutsazalako.

Bere illobatxo txikienari min ez emotearren danen aurrean katuari ez autsan ezer be egiten, baiña illobatxo ori beste anai arrebakaz eskolara edo beste lekuren batera joaten zanean makilla aundi bat eskuan ebala etxetik kanpora uxatzen eban katu eder ori.

Estebanek iñoanez katu ori etzan beste katuen enda edo arrazakoa. Bere osaba Andresek bein esan eutsanez Ameriketara ugari ziran katamotz antzeko enda berezi batekoa zan.

Irubidetan ikusten ziran katuak baiño aundiagoa zala eta itxuraz beintzat ederragoa danak esaten eben. Baiña ez ekian Estebanek Reno urian kaiola barruan sartu ebanian, bere errian, bere etxe barrian, katu orrek zelako edo zenbaterañoako naigabeak ekarriko eutsazan.

Urriñetik de olako susmorik izan ba leu ez eutsan bere alabatxoari bezuza edo erregalo ori eroango. Ez amesetan be. Amama zaarra etxean bakarrik gelditu zan igande atan.

Berak goizeko lenengo meza entzun eban eta beste etxeko guztiak meza nagusira joanak ziran. Naiez edo *apropos* janariak gordeten ziran gelako atea zabalik itxi

eutsan katuari, gaztei edo okela lapurretara laster sartuko zalakoan.

Baita katu, atea zabalik ikusi ebanean, bere lapurretara sartu be. Sartu izan atzetik bere makilla eskuan ebala amama zaarra eta atea barrutik itxi eban. "Oraintxe bai il bear aut katu madarikatu lapur ori", esan eta katuaren burua ausi nairik asi zan.

Katua nundik urten ez ebala aurkitu zanean amama zaarraren samara igon eta bere atzamar zorrotzakin, konturatu baiño len, ilda itxi eban. Olantxe aurkitu eben eleizatik etxeratu ziranean bere senideak, gela atako atea zabaldu ebanean. Laster konturatu ziran danak katua izan zala amama zaarra erail ebana.

Su iskillu bat artu eta tiro bat buruan emonaz bertanbera ilda itxi eban katu gaiztoa Estebanek.

"Katua ala deabrua ete zan"? itaunka ebizan Irubidetarrak Sagarduiko amama zaarrak zelako eriotza izan eban jakin ebenian.

Jazokun orrek Sagarduitarrei naigabe asko ekarri eutsen arren, denpora gitxi barru dana aztuta egoan eta poza be barriro eurenganatuta.

Ementxe amaitzen da nire ipuin antzeko jazokun au. Irubidetarrak oindiño itaun auxe egiten dause alkarri: "KATUA ALA DEABRUA ETE ZAN...?"

AITA BIZENTE BATIZ

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIAK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

ZIGORTU

Goiria

Gizona gizon danetik izan da zigorra munduan. Erri danetan izan dira zigorrak gaizki egiña zigortzeko. Jaunkoak Berak be zigorrak jarri ebazan okerrak zigortzeko.

Argi agiri da au Lege Zarrean, bai Lege Barrian. Gizonak be zigorrak jarri izan dabez beti lege-ausleak zigortzeko. Mundu guztiko errietan ikusten dira gaur be zigorrak. Izan be zigorra galba da gizonarentzat.

Gaizkin aundi bat egin dau batek? Ainbeste urtetako espetxea. Kalte aundiren bat sortu-erazo dauala? Ainbeste diru ordaindu bearko dau. Zerbait ostu dauala? Onelako zigorra. Okerkeriren bat egin dau umeak? Etxe-abarruan kalera urten barik. Bear eban aña ez dau ikasi eskolan? Beretzat ez da jolas-aldirik. Etxean egongo da ikasten. Eta orobat. Futbolista dan aldetik ez dau bere aldetik egoana? Dirua kendu, jokatu barik euki ainbat alditan. Zigorra. Norbaitek ostikadaren bat emon dautsa? Zigorra. Pelotari dan aldetik zuzengabekeriren bat egin dau? Zigorra. Eta onela danetan. Gaizki egiñak zigorra dakar. Zigorra mere-si. Baiña zenbat zuzengabekeri zigorrak jartzean. Agintariak, goikoak, menpekoa, bekoa zapaldu. Erri aundiak txi-

kiak zapaldu. Bidegabeko legeak ipiñi ta ontzat artu-erazo. Enda txikiak zapaldu birrindu, ta il-zorian jarri aitzakitizat edozer artuta. Bidegabeko zigorrak.

Zigorra sarritan bearrezkoa da. Legea ausi danean; zuzengabekeriren bat egin danean, baiña zuzentasunez jokatuta. Ona gizon argi batzuen esanak.

“Aserretuta dagoanak zigorra jartzen dauanean ez da izaten onerako, txarkeria ordaintzeko baiño. (Nietzsche.)

Gaizkiña egin eta bertan sartzen da zigorra gizonaren biotzean. (Hesiodo.) Gaizkiñik ez egiten alegirdu zaite zigorrik zaugenadu ez dagizun. (Konfuzio.)

Auxe da gazikiña egin dauanaren lenengo zigorra: bere gogapeak epaitzen dau egundo parkatuteke. (Juvenal.)

Gizapide-jantziz apaindutako aierkundera da zigorra. (Birgil.)

BIZIA MARTXAN

Udaberriz arnastuta
onbidetsu dator goiza
eskeñirik beren poza
eguzkiak ernalduta.

Bizitzaren mendu, ariz,
goitasunez errotuta
itxarozko egun argiz...
Orra lurra loretuta!!

Bizia jarri da martxan,
bizidun oro, ederrik,
soñeko berriz jantzirik
bakoitza bere egintzan.

Sugarra zure eskuetan,
Sugarra zure begietan,
Sugarra biotz barruetan
Sugarra bizidunetan.

Gabaren ta Eriotzaren
Igaranezko Aldia
egun sortze argiaren
eragiñez itzalia.

Erdian gure euzkia
Zutik Aldiaren aurka,
Bizitz errañu bizia
Egunari so, agurka.

- Ene, Iñaki, adiskide on, entzun dozu diñoena?
- Zeri buruz da zuk diñozuna? Esan eidazu, laguna.
- Zuk bosteun billa irabaz dozuz, Gernikan, apostu einda.
- Iru guzurak, diñozuzanak, berba gitxitan esanda.

Orain egia entzungo dozu;

Jarri zaitez eta entzun:

Etzan Gernikan, ori Bilbon zan;

siñistu eidazu, lagun.

Etxiran izan pozturakoak

bosteun, bakarrik eun,

t'eurak galdurik, lotsari aundiz,

baztarrean negon, zordun.

Begira zelan gure artean,

dagon, ba, ikuseziña.

Min emoten dau besteen onak,

probetxuz badau egiña.

Auxe bai dala kaltegarri, ta,

kendu bear dogun griña.

Bizi gaitez an maitasun aundiz,

anai-arrebak bagiña.

FELIPE ARRESE BEITIA, OLERKARI (1841-1906)

Itzak egokitzea, beti eder. Beraz, zer da olerkia? Ta zer olerkari izatea? Olerkia, poesia, gizonaren barruko zerbait da; bere izate barruan, adimena ta naimena erabiliz, sortzen danana. Ezkutu aundia da giza-barrua, adierazpenez eta sentipenez betea. Eta kantaria kantu bat abesten dauana dan lez, olerkaria bere barruko adierazpenak eta sentipenak itzez jantzi ta argi jarten dauskuna dozu. Gure barrua mundu dautso, munduak berezi bat da: batzutan pozik dago, gero niñez eta larri; eriotzeak bildurra sartzen arrimena; eder jako Jainkoaren eta gizonaren egite arrigarriak bertsoz esatea. Olerkian geienik ez da jazoera bat kantatzen, kanpotikoa baiño geiago barrukoa da kantagai. Biotz-zauskada da batez be poesia; ta au, naizta jazoera baten zear be, ots, narratibo deituan be, norbere barru egoera zatika lez aurkitu, olerkiaren guna biotzaren eragiñean datza. Gogora Arrese-Beitia.

GIZONA

Otxandio'n jaiotako Arrese-Beitia 1841-5-25'an. Gaztetan Gasteiz'en eta geroago Donostia'n egindako egotaldi laburrak kendu ezkerro, bere jaioterrian emon zituan bizi-tzako egun guztiak. Arotza zan, bere esku-lanetik bizi zana. Eleiza askotako santuak eta altarak, batzuk egin eta beste batzuk, barriztatu zituan; trebea zan onetan, antza danez, "santugiña" esan eutsoen-eta. Bere erriko eleizako, egurrezko gauzak, bereak dira oso-osorik, eta Donostia'ko egotaldian, ango Ikastetxe zarreko goi ertzeko euskotar gizon entzute aundikoan iduriak, berak zizelatu ebazan.

Ogetamar urteko, Anjela Bengoa'gaz ezkondu zan, sei seme-alaba izanik; lau gazterik il jakezan, Luzio'k eta Puri'k, ostera, urte luzeak artu ebazan. Guraso ona tarriarentzat be laguntzaille zintoa izan zan Arrese-Beitia; beti prest egoan edozeini laguntzeko, karta bat idatzi bear zala, testamentu hat aurrera atera, ondasunak anatu, mesede bat eskatu naiz beste edozer gauza egin, otxandiotarrak beragana jotan eben. Bere poesi-lanetatik agiri danez, kristiñau legea benetan arteza genduan Arrese; eliz-kantak ez-ezik, bestelakoak be, goi-ixuriz gaiñezka daukaguz.

Eta auxe zan, izan be, euskaldun guztiontzat opa ebana: fede-batasuna, ez jakozan eder liberalkeriak. 1880'an Maule'n sariztatu eutsoen "Bizi da ama euskera" itz-neurtuan, onela kantatu eban: "Neure anaiak, bat izan beti —Euskeldun siñiskeretan; —Bat izan geure uste, eretxi, —Gogo eta asmuetan; —Fede bizi bat baldin badogu —Biotz eta arimetan, —Bakez oraindiko biziko gara —Mendi, atx eta ibarretan". Ezta arrigarri: bigarren karlatar gerratean gorriak ikusi ebazan, fedea ta foruak jagon nairik. Orrela agertzen jaku bere poesi-lanik geienetan.

Eta orrexek eraginda asi zan olerki idazten. Urte areitako goraberak zirala-ta, "nire biotzak mingoztasun asko iruntsi ebazan" diño berak; alderdi bietakoak ez eben erakusten arrokeria baiño. Onela darrai: "Danak egin eben

ondo euren gerrea euren miñean; baña nire biotzean ez". Eta idazten asten da. "1879'ko udabarrian —diño— gogoak emon eustan eresi bat egiu bear nebala illetatsu edo negerrezkoa, iñok egiten ez eban ezkerro. Jaungoikoa-gana biotza jaso, ez ezkerro ta ez eskumara begiratuta, bakarrik gora eta geure izkera ta Arboleagana, asi nintzan ipinten *Ama Euskeriaren azken agurrak*. Eta Elizondo'n ospatu ziran euskal jaietan olerki onek irabazi leenengo saria.

Olerkari

Eta emen daukagu santugiña, olerkari, ogei bat bider poesi-sariketetan saritua, ain zuzen. Arrese'k, idatzi ebana bertsoan idatzi ebala esan bear, eskutiz batzuk ba'dituan arren; olerkitan uste eban bere barru bizi, gurbil, olerkitzua. Eta Orixe edo kendu ezkerro, ezta arek beste euskal literaturan bertsozidatzi dauanik. Orduko aldizkari guztietan agertzen dira bere lanak: "Euskal-Erria", "Revista Euskera", "Euskalzale", "Ibaizabal" eta olakoetan.

Arrese, garai aretan, ondo artua ta txalotua izan zan olerkari lez. Kanpion zanak, esaterako, goi-goi ipiñi eban arotz onen lana; bardin egiñik Auñamendi'z emengoak naiz andikoak. Aren lanak onartuak eta argitaratuak. Ona aren bertso-lanik beiñenak, naikotan argia ikusi dabenak:

— "Ama Euskeriari azken agurrak" (*Revista Euskera*, 1879).

— "Bizkaitar zarrak eta erromatarrak" (*Revista Euskara*, 1883).

— "Ama Euskeriaren Liburu Kantaria" (Bilbao, 1900). 496 orrialde.

— "Asti-orduetako bertsozko lanak" (Bilbao, 1902).

— "Olerki Sortatxua" (Zornotza, 1930). Amasei olerki.

— "Olerkiak" (Zornotza, 1933). "Jaungoiko-Zale" bazkunak osoturiko txorta.

— "Olerkiak" (Bilbao, 1956). Neuk egindako bilduma, 688 orrialdekoa. Arrese'ren lanen txorta oso samarra burutu nai izan neban; baiña or geratu ziran olerki naikoa bilduma orretan sartu barik, "Euskal-Erria"-n eta "Ibaizabal"-en datozanak batez be, orduan ez bait nitun esku artean aldizkari orreik.

Orduan nik bederatzi zatitan banatu nebazan Arrese'ren olerki-lanak. Ona:

— "Kantu errikoiak", ederrenak nunbait, biotz-biotzean sortuak.

– “Lirika kantuak”, ederrak oneik be, biotzetik urte-nak, negartiak asko.

– “Gora kantuak”, gizaseme gurenak txalotuz egiñak.

– “Amalaukoak”, polito biribilduak ditu 35 bat.

– “Eliz kantak”; oso Jainkozale zan Arrese, beraz eliz-kantak egokiozan aren barne-lirari.

– “Alegiak”, geien-geein beintzat, bereak ditu.

– “Ipuiñak”, erriko barregarriak eta, astintzen ba ekian.

– “Irakurgaiak”, askotariko gaiez dotoretuak.

– “Erderatik euskeratuak”, Zorrilla, Herrera, Quintana, Valbuena ta olakoak itzuliaz.

Olerkigintzan Arrese’k zaindu eban oindiño, garai are-tako romantizismo atzeratuz kutsuta ba’zan be, euskal poetikan antxiñatik etorren tradiziñoa, gaur be bertsolariak eta mugaz andiko olerkariak naiko ondo zaintzen dabena. Joera jator ortatik, egia esan, zerbait saiestua ibilli jakun, geroago Arana-Goiri, Oiartzun’go Iñarra, K. Etxe-

garai, Tolosa’ko Emeterio Arrese ta gero gerokoak ibilli jakuzan lez. Baiña geienbat leenari lotua ibilli zan, adimen zorrotza, irudimen bizia ta biotz kilikagarria erakutsi eban otxandiotarrak. Gauzak adierazteko ganoreak dizdiz dagi aren bertsoetan.

Orixegaitik goratua izan zan, eta ez gitxi, bere garaian eta geroago. Kanpion’ek olerkari aunditzat euki eban. “Olerkari gorengoa dogu Arrese —iñoan—, baiña euskal olerkaria gero, eta aberri-miña kantatzen, nik uste, iñor baiño euskaldunago. Eskuratu bere olerki ederretatik edozein, ta euskal erriaren muin gartsua ta azal islatsua bertan aurkituko dozuez”. Foru-zale da Arrese, ta onek emoten euskuezan eskubideak ilda ikustean, eurok negartzen ditu, malko-jario”.

Eta nik idatzi neban beiñola: “... Arrese-Beitia dogu, olerkari errez, aberatsa, izkera gozo ta durundi meeduna. Onek baizen bigun ta sentikor ez ditu iñok kantau Euskal-Erria, Euskera ta Aritz aren atsekabe-lorrak” (*Olerkiak*, 7 or.).

Gaurko girorako be ez dogu oskol Arrese-Beitia. Espaiñar olerkari erromantiku Nuñez de Arce’k merezi ba’dau antolojietan agertzea, zergaitik ez onek? Irakur beronen “Arbola bat” deritxon zortzi aapaldiko lan au, Bilbo’n 1881’an donkitua.

*“Arbola bat zan Paradisuan
Jaunak apropos jarria,
mundu guztiak artu egion
lotsa ta itzal andia;
bere azpian bizitea zan
aita Adanen gloria;
andik kanpora zer topau eban
ezpada negargarria?”*

*Arbola bat zan Bizkaian bere,
neure anaia laztanak,
zeiñen azpian, pozez beterik
egoten ziran asabak;
kerizpe zabal artan jarririk
eginda euren Batzarrak,
buztarri baga, nasai ta libre,
bizi ziran bizkaitarrak.*

*Bere azpian umildu ziran
Errege Gaztelakoak,
eta lekurik ez eben izan
sekula barriz moroak;
atzera gura badogu izan
libre len giñan lakoak,
itxi daiguzan erdaldunentzat
erdaldun diran kontuak.*

*Aztu daiguzan geure artean
izan diran aserreak,
izan gaitean anaia eta
euskal zintzo garbiak;
betor guraso zarren fedea,
betoz asaben legeak,
bere negarrak leortu daizan
ni jaiio nintzan Erriak.*

*Arbola santu aren azpian
bizi zan zeruan legez,
eukazalako atsegin danak
eta nekerik baperez;
ai!, begiratu baleutsa beti
lotsa on eta itzalez!
Mundua etzan gaur aurkituko
onenbeste atsekabez.*

*O neure Erri maite maitea!
Zakustaz triste negarrez,
zure alabak euren buruak
baltzez estaldu dituez,
trentza mardoak tiraka atera
ta sutara bota dabez,
gaur euskaldunak dirala orrek
ezin ezagutu leikez.*

*Ixildu ziran neskatxen kantak,
mututu artzain-txistuak,
zelai zabal ta jolas-lekuak
gaur dira basamortuak;
arroak beera, itxasorantza,
dotazan errekatxoak
gau eta egun txilioz dagos:
“ai, gara Gaztelakoak!”*

*Bakarrik dakust pozgarrirako bat,
euskaldun amen fedea;
benturaz onek bigundu leike
Jaungoikozko aserrea,
eta zerutik jatsi barriro
galdu zan libertadea:
mundua mundu bizi dakigun
Gernikako Arbolea”.*

AITA ONAINDIA



LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (ITXASU ERRIAN ETXEDOIA'N)

Udearen azken aldian barri pozgarria eldu jakun. Euzkadi'ko Gobernuak, gero errefujio izenez ezagutzen genduzan etxeak ipinten zituala Capbreton'en eta Itxasu'n, laguntza bearrean arkitzen ziran emendik ara joandako euskaldunentzat. Duan egongo ziran bertan.

Gutzat be a ondo etorren eta ara joateko bideak egiten asi giñan. Kepa, Paulo "Zoxu"ren semea, joan zan lenengo. Au ordurako gugana etorrira egoan osaba Donato'nera ta zortzi-amar egun gugaz egin zituan. Sokoa'ko ondartzan Albizu abizeneko elgoibartar bat ezagutu genduan eta Itxasu'ra joan nai genduala jakin ebanean, bere anaia ango zuzendariaren laguna zala ta lagunduko eskula esan eban. Eta alan bere anaia eskutitz bat egin eban ara elduten giñanean zuzendariari emoteko. Iregia (edekia) zan eskutitza ta irakurri egin genduan. Gu koitadu batzuk baigiñan idazten eutsan, laguntza premiñan arkitzen giñanak. Ez jakun atsegin izan ain koitadutzat artzea ta apurtu egin genduan eskutitza.

Kepa'ren urrengo, Teodoro ta Rafael anaia biak joan ziran. Ni, ez naz gomutaten zegaitik, baiña egun batzutan ezin nintzan ara joan.

Joateko eguna eldu jatanean, lagun batzuk zain neukan agur egiteko Ziburu'ko enparantzan pelota toki ondoan. Ezin itxi arte beteta neukan maletxa txirringa atzean lotu neban eta asi nintzan joaten. Atzeko zama a guttiz arrotz egin jatan eta batera ta bestera giñadaka asi nintzan, paillasoak zirkuetan egiten dituen antzeko zirkinak egiñaz, noiz jausiko. Geratu egin bear izan neban. ¡Nire lagunak egin zituen barriak orduan!

Neu be barrez nengoan baiña naikoa buruaustegaz, ezin izango nintzala joan-da. Baiña lagunak, baietz eta baietz, erreza zala ta barriro asteko, esaten eusten. Ez neukan beste biderik eta bildurrez bada be, asi nintzan. Baiña bigarren onetan ez nintzan okertu, kontu andiagaz asi nintzalako kontixu ta lagunai agur esanaz aldendu nintzan andik. Itxasu'ra arteko bidea txirringatik jatsi barik egin neban, aldatzetan be txirringa gaiñean joan nintzan.

Itxasu'n gure bizi tokia, Etxedoia izeneko etxe andi bat zan. Gu joan giñaneko, berrogei bat lagun bizi ziran an, geienak mutil gazteak. Zubizarreta'tar Iñazio bergarar adiñeko gizona zan zuzendaria. Geroago Etxebarria'tar Bitor bilbotar gaztea etorri zan kontulari. Abadea ta osagillea be ba-geunkazan eta andrazko bi azieran eta gero lau-edo, garbiketarako.

Arratsaldean egunero, etxean bertan, agurtza edo errosarioa otoiztu ta ebanjelioa edo erlejiñoiko beste gai- ren bat azaltzen euskun abadeak. Etxean gengozanean geienok joaten giñan agurtza orretara.

An gengozan gaztediak, emeten euskuen beste ainbeste errez jango genduan; eta jardinean gengozala jaterako "tan-tan" deia jotzen asten ziranean, laster zirkin egiten genduan.

Gudan ibilli ziran mutillak (gu ez beste guztiak) ez egozan ikastetxeetako edo gudari etxeetako diziplineagaz egoteko ta zerbait marmarra izan zan. Eta Etxebarria'tar Elias, abaro etxeen arduraduna, donostiarra bera, etorri jakun, eta sermoitxo bat modu onean egin euskun.

Baten, maian aurrean neukan Kelmen izeneko elantxobetar mutil gazte morroskoak, nire aurka berba egin eban nik orretarako biderik emon barik; zera, ni gudan ibilli ez nintzalako euren ondotik bialdu egin bear ninduekeala. Gogor erantzun neutsan, eta besteak ez eben aorik zabaldu, eta bertan bera amaitu zan dana.

Erriz-erri kontuan artuta ondarrutarrak giñan geien, Etxedoia'n; ia ogei ba-giñan. Gu iru lengusuok eta beste bat kenduta, danak arrantzaleak. Getariarrak lau arrantzale ta baserritar bat egozan. Euretatik bat, Larrañaga abizenekoa, gizajoa urrengo neguan Getaria'tik arrantzan ebillela, ito egin zan beste iru anaiakaz batera. Bizkaitarrak ba-ziran merkante itxasontzietako piloto ta kapitan, iru-lau. Aitatu dituanetatik kanpora, danetarikoak ziran: arrantzale, baserritar langille ta abar.

Zer egiñik ez geunkan eta eskola apur bat ikasteko erea ipiñi eskuen. Batzuk lenengo maillako ikasketea ta besteak kontabilidatea. Neu be bigarren saill onetan ibilli nintzan. Irun'go Orbegozo'tar Benito zan irakasle gugaz. Illa batzuk egin genduzan orretan, eta bein, azkenean, egin genduzan balantzea ta liburuak itxi edo sarra-tzea.

Gero aspertu-edo egin giñan irakasle ta ikasleok. Edo zuzenago esateko, beste buruauste batek kezkatzen ginduzan: gaiñera etorkigun gudeak.

Denpora eroangarri, beste zerbait be asmau genduan, lengoaz gaiñ, lenengotik: abesbatza. Abesbatza onen zuzendari be Orbegozo izan zan. Bere lana erreztuteko,

ondarrutar birek laguntzen geuntsan: Azpiri'tar Joakiñ'ek lenengo tenor saillari erakusten eutsan eta nik bigarren tenorrai. Ta berak Orbegozo'k baju saillari. Besterik ez egoan solfeoan ekienik, notak ezagutu-edo izan ezik. Baiña nai aiña asti geunkan ikas-saioak egiteko ta polito ataraten genduzan abestiak.

Meza bi ikasi genduzan, biak Pedrossi'renak: Iru abotsetakoa ta Requien'goa. Jakiña, au be iru abotsetakoa da.

Mezea abestuteko Beobide abizeneko bat etorri jakun organua jotera. Abizen ori eukan ereslari naikoa ospetsua ba-zan orduan Gipuzkoa'n, baiña gugana etorten zana beste bat zala uste dot. Baten, elizan, bertan saioa egiten (ikas-saioa esan nai neban) geniarduala, geratu eragin euskun didarka; bigarren tenorrek nota bat txarto egiten ei genduan. Alantxe zan. Neu nintzan alan irakatsitakoa. Meza oso bitan nota bat bakarrik txarto artu ta irakastea ez zan lan txarra.

Nik Perossi'ren iru abotsetakoa Ondarru'n entzuten neban eta osorik artuta ezaguna neban; baiña Requien'goa bein be entzun barik nengoan. Gero jakin nebanez, lenengo maillako edo Primera'ko illetetako elizkizunekoa ei zan. Ta nire senideen artean Primera'ko illetarik iñori ez jakon egin, eta orduan oraindik ez nintzan koruko abeslaria ta meza a entzuteko aukerarik ez neban izan eta ez neban ezagutzen. Dies Ira zatia ezagutzen neban, Domuru Santu egunean abestuten zalako. Ain zuzen, meza aretan izan zan txarto abestuten genduan notea.

Bi edo iru bidar abestu genduzan mezak bertan itxasu'n. Bat, Requien'goa milla bederatzireun eta amalauko gudearen ez dakit asierea ala amaierrea ospatzeko izaten zan egunean. Beste abestiak, euskal abestiak, Itxasu'n, Kanbo'n eta Baigorri'n abestu genduzan. Azkenengoan, mezea be abestu genduala uste dot. "Kalez-kale" abestuteko Orbegozo berak txistua jotan eban eta bere ordez Azpiri'k abesbatza zuzendu.

Baten Getaria'ko abade bat etorri zan ikas-saioa zuzentzera, ezer okerrik bagenduan konpontzera. Bere abizena Aranburu zala uste dot, baiña ziur ez nago. Ni ez nengoan Itxasu'n egun aretan. Zerbait zuzendu ebalan esan eusten.

Errefujio edo abaro etxeen agintari edo arduradunak geuri lana emoteko bidea asmau eben, abarketa egite lana. Beste errefujio etxean. Capbreton'goan ekiten eutsela lan orri, jakinda gengoan; eta abarketak egiteko mai pilloa ekarri eben Etxedoia'ra. Baiña ango gazteak, askok, lan orretan asteko gogorik ez eukan; iñok ezin eikezala lan orretara beartu esan ebenak izan ziran. Eta jendearen orretarako gogorik eza eldu zan kontixu agintarien belarrietara; beintzat, bertanbera amaitu zan gauzea. Ez euskuen ezer esan lan orrezaz.

Nik neuk pozik elduko neutsan lan orri zerbait ikastearen be, nire arrain lantegiko (nirea ez) lan zikiñagaz aspertuta nengoan-da. Baiña ikasi ba'neu be alperrik izango zan, gaur alako abarketarik iñok ez dau erabilten da, edo gitxik.

Euskerarik ez ekien bilbotar batzuk (edo Bilbo ondoakoak) egozan Etxedoia'n. Ta zarauztar bat, Etxabe, maixu ebela ikasten asi ziran. Baiña orixe, asi bakarrik, bada astebeterik ez ebela iraun uste dot. Baiña ba-ziran, euskerrea ikasteke benetako zaletasuna eukenak. Nik uste dot, euren errietan bizi ziranetik ibilliko zirala arazo onetan. Bat bilbotarra zan; bere izen abizenakaz ez naz gomutaten. Frankotar gudaria zala Naparra'ko mugatik iges egin eban alderdi aretara. Bestea, Areneta'koa (Las Arenas), Avelino Gonzalez Zulaika izen abizenek; itxastar gaztea (nautikoa), gitxi moduko mutil zintzoa.

Oneik ez eben nai izaten guk, erriko euskerea baiño ez genkianok eurai ezer irakasten asterik, txarto irakatsiko geuntsan bildur ziran-da. Ni ordurako asita nengoan euskal asterakoetan idazten, eta eurakaz musturra sartu naian egoten nintzan. Baiña areik ez ekien nire euskera zaletasunaren barri ta nigaz be ezer eben nai.

Bein, zer egiten eben, zelateka begiratu neutsen eta euskaldun belarriak iñundik iñora ontzat ezin emon eikean utsa eukan idatzita. Nik orduan eurai:

—Eso está mal. Se escribe así y así.

Ta euretako batek:

—Y ¿dónde metes el artículo?

Ta nire erantzuna:

—Y ¿qué es artículo?

Ara or, ni zenbat nintzan gramatikan ogetabost urtegaz. Artikulua zer zan be ez nekian.

Ez dakit jazoera onek eraginda ala berez, andik laster, gramatika ikasteari ekin neutsan; artikuloa, pronombrea, aditza ta abar zeintzuk ziran ezagutzen asi nintzan. Gero, neure jira-bira guztiak eginda etxeratu nintzanean be jarraitu neutsan zeregin oni apur baten. Baiña gramatikan nik ikasi al izan dodan guztia, edozein amar-amabi urteko umek dakiana baiño geiago ez da izan.

Edonun be, mutil gazteak ondo ikusiak izaten dira neska gazteen artean. Mutillak eurak be bein etxetik alde egitean nesken adiskidetasuna gogo andiz billatzen dabe. Ta neskentzat ez dago atzerritar mutillik eta erritarrik. Itxurazko mutilla bada, edonungoa izanda be atsegin izaten jake. Egia, mutillai be bardin jazoten jake neskakaz.

GUDALDIA

Itxasu'n be Etxedoia'ko gazte batzuk adiskide ziran ango neskakaz. Bein illuntze baten arrika egin euskuen sasi artetik Kanbo'tik oiñez gentozala. Ziur mutil gazteak izango ziran arrika ibilli ziranak. Arriketa andia ez zan izan; iru-lau arri txiki jaurti euskuezan eta aringa-aringa txikia egiñaz iges egin genduan. Baiña beste lagunai gogorrago ekin eutsen; ba-ekien kontixu areik zirala nesken adiskideak. Ta ori gitxi bailitzan, igande gau baten, gaberdian, Etxedoia ondora etorrita didarka ta ate joka nabarmen ibilli ziran lizkar billa. Jakiña, ez geuntsan jaramonik egin. Nik, egia esateko, ez neban ezer entzun. Beti be lenengo loa gogorra izaten dot.

Kontixu, jazoerok ago bikarioarengana eldu ziran eta igande baten, mezatan, gogor berba egin eban gure alde. Gudea zala-ta etxetik alde egin bearra izan genduanok ondo artzeko, arren eskatu eutsen bertakoai. Eurak eta gu, bat giñala odolez, bat mintzairaz, bat fedez.

Geiago ez genduan ezer izan angoakaz.

KAMIÑAZPI

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK
1984-85 IKASTAROA

AMAZAZPIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN

EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDANA: 7.000 peseta.

IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBO.

URRUZTIZKIA 423.53.22

BASERRITAR AURRERATUA

Errigoiti'n basetxe bat dogu Bizkaigane izenekoa, euskeraz esan gura dauana orixe Bizkaia ganean dagola.

Mendi baten ganean dago, eta andik agertzen jaku alderdi eder, ikuspegi zoragarria.

Bizkaigaine basetxe onetan eskonge anai bi bizi dira, Arrien'tar Salvatore ta Paul eta biok bear egiten dabe arazo, arlo baten.

Eta batek agindu eratu bear gauzak. Nok? Salbato-re'k. Berau agintari danez, korta eder andi bat egin dau 45 aberentzat ustiatzeko, bere anaiaren laguntzaz, berak ardurea daroala. Oraintsu kortea *amaitu dau*. Bertatik burua ateraten ba-dogu, urrunean Oiz-pean "Bizkai'ko Balkoi", begira-toki edo Galarregi dakusgu.

Berez kostera-eralgia sei milloi laurleko izan da.

—Nok emon dautsu dirutza ori?

—Euskal Gobernuak emon daust euneko amarrean, ta gero baitura prestamen ordaiñez euneko bost eta seian, amar urterako. Mekanika makiñazko da jaiztegi azpilla, eta esnea doa artez beiazen errapetik otz-ontzira. Ontzi otza baserriak euki dauan garai-erospen eskuraturik andiena da. Len goizean goizetik jagi bear zan esnelariaren berebil andia etorren-eta. Orain esnelaria elduten da, erautsi, batuten dau odia ta utzituz ontzia, *badaroa esnea*.

Ikusi genduan Salvatore esnea erautsi edo batuten eta iñoskun: ontziaren kostera-eralgia Euskal Gobernuaren

diru-laguntza laurogei mille laurlekotan geratu da, au da, euneko ogei *bere baliotik*.

25 urtean iraun lei, ta 35-40-ra laurleko kostera-eralgia esne neurkin bakoitzean. *Esnea otzik eukitearren* pezeta bat *damost saritzat Ona-Ram esnetegiak*. Emen deukogu bigarren lur-aldea ta 29 laurleko txopin esne bakoitzaz emoten dabe, baiña esne otza ta koipedun dalata 35-40-ra laurleko eskuratzen dodaz. Olan zainduten gara. Mingarritz ale-garraburu salneurria garesti dago; igaz sei bidar egi eben, ta orain beste goraldiren bat iragarten dabiliz.

Abereak. Alan da guzti be, Salbato'ren kortako lillura zoragarrik andiena beiak dira. Jatorri bako beiak usti-aldi edo irabaziak egiteko eztabela balio uste dau Salbato-rek. Orregaitik Ona-Ram esnetegira joaten da Holanda'ko bigantxak eskuratu dagiazan. Ona Ram'ek Holanda'ko. Coveko izenekoa dan alkarte andi bategaz artu-emonak al daukaz. An amaika Lurralde'ko 17 mille aberedun batzen ditu. Bigantxak 18-26-ra illebetekoak, umedun 5-8-ra illebetetik direanak ta 513 kilokoak batekoz beste astun. Euzkadi'ra ekarri baiño len txerto-bakunak egiten dautsiez bruzelosis, tuberkulosis, leukosis, ektorposis ta sukar aftosa eriak uxatuteko. Augaitik abere bat be ezta emen gaisorik egon.

Ikusten dogunez, Arrien'tar Salvatore'k abelzaintzarako jokera ta leia itzelezkoa dauko. Ez dago eskonduta bizimodu orretarako ez dau kalako astirik.

Bere korta ta abereakaz ta bere anaiaren giza-laguntasanaz pozik dabil gure mutilla.

LETONA'K

ALBIZU'TAR BALENDIÑE'REN OLERKIAK

Aspaldion daukat, neugaz, Albizu'tar Balendiñe'ren olerki-liburu ederra, ber-berak bialduta; Biotzez eskertzen nakio. Baiña batean batagaitik eta bestean besteagaitik, gure emakume olerkariaren bertso biozkoieri neure eritxia idaztea luzatu egin izan yat. Ondo meresiduta dauko, ba, Balendiñe'k, euskaltzaleon gorespena, gudu ankerrak Aberriatik jaurti-ta atzerrian urte luzeak egin bearra izanarren, bere izkuntzeari, euskereari, eutsi ezeze, indar-barritzen be alegindu izan da-ta olerki bikain, maitetsu ta aberkoiekaz.

Len argitara euskun olerki-liburu bat eta oraingoan, lengoakaz eta beste askoaz ornidutako idazti ederra: Benetan lan goresgarria!

Era askotako olerkiak ditu, liburu barri onek, eta guztiak ama-biotzaren samurtasunez eta maitetasunez onduak. Olerkari ugaria dogu, izan be au, zarautzdar emakume zintzo au; edozein jazoerari ateraten dautsoz bertso dotorez ornidutako aapaldi mamintsuak. Emendik, Euskal-erri'tik, alde bearra izan ebanez gero beti bizi izan da Aberrira begira, erri miñez, eta orixe, biotz-eragin orixe, izan dau, aurki, bere olerkiak ontzeko etorririk onena, argitasunik biziena, *Erri-miña* olerkian diñoan urrengo aapaldi onetan argi adirazten dananez:

Euskal-erri maite
urruti egonarren,
zu beti nere gogoan
bai orain ta bai len.

Gaur egun, politika arrotzak gogoak illundurik, iru-lau olerkari (olerkari?) lotzagarriri, toki guztietan, gogaika-

rrizko ekiñaldiz aldarrikatzen diarduenak gure benetako olerkari lanak ikusteko, setakeriz-edo, ertzita daukez begiak. Besteen lanak eurenz goznartu ta epaitu bearrean, iru-lau naaste-zale buru beroren esanetara makurturik, euren laguntxuen eritxiak birresaten diardue itsukeriz. Eta olangoen artean, gizon eta emakume ikasiak edo, ikasten ibillitakoak, beintzat, or-emenka.

Gure olerkari zerrendan lotsa bagarik ezarri bearrekoa dogu, ba, Albizu'tar balendiñe, bere la onuragarriak gure izkuntza zaarra kimu barriz txertatuz, euskal-elederra, elertia, ugaritu egin dausku-ta. Ez dogu, ala, benetako olerkaria *Ixiltasuna* deritxon olerkitxuan au idazten dauskuna?

Goxo-goxo entzun det...
Ixiltasuna!
Bere besoak bildu naute...
Au zoriontasuna!
Zaratari iges egiten...
Bakartasuna!
Ixiltasunak sumarazten dit
Goitikotasuna.

Aurrera, ba, Balendiñe, neure izenkide ta arpegiz eza-gutzen etzaudazan adiskide ta berkide gogoko ori eta jarrai zeure olermanaren etorri ugaria Euskal-erria-zear zabaltzen, edonungo olerkari lanen ondoan ezarteko be lotzarik ez dabe zure okerki argiak-eta.

AURRE-APRAIZ

IRAKURLEAI

Irarkolako ordaindu-bearrak be gora doazelako, datorren urtean asita, urterilletik aurrera, ZER'en arpidetza 700 pezeta izango da eta ale bakoitza 70 pezeta.

EUSKERAZALEAK

SEME-ALABAK ERAGOZPEN?

Goiria

Gaurko bizitza nastuan danak ez baiña askok bai-euren umeen ardura itxita beste batzui leporatu nai leuskioe. Azta aundia dira eurentzat umeak. Geiegi lotzen dabez. Andik-ortik, gabaz eta egunez ibiltzeko eragozpen aundia dira.

Auzi onek bere garrantzia dau. Bizitza-bearrak urriñe-ra daroaz gurasoak. Zer egin ume txikiakaz?

Ez da gauza erreza umea nork zaindu aurkitzea.

Udan-da erritxo batera.. itxas ertzera joan dira oporaldiak artzera.

Mendi-zaleak dira ta mendira joan nai leukie euren adiskide-lagunakin.

Nori itxi umea?

Estu aurkitzen dira sarritan gurasoak. Antxiñako gure zarrak barre egingo leukie onelako gauzak ikustean. Euren garaian ez egoan olakorik. Beste aldi batzuk ziran. Biziera asko aldatu da gaur. Len gitxiago urtetzen zan etxetik. Kirolik be ez egoan... Mendizaletasunik be ez... Kale giro gitxiago.

Len sendi-bizitzak indar aundiagoa eukan. Sendia batuago bizi zan. Umeak ardura aundiz zaintzen ziran. Bear bada laztankeri gitxiago, txera gitxiago, baiña leialtasun eta ardura geiago.

Beste bide bat artu dabe gaur gauzak. Guraso askok lan egin bear dabe eguneroko ogia eskuratzeko. Askok asti aundirik be ez. Geienetan baiña gogorik eza da. Umeen ardura geienetan beste bateri leporatu. Beste baten ardurari itxi umeak. Neska bat... andra eldu bat geienetan umearen amama. Onela eginda aita ta ama azkeago egongo dira. Ta umearen ezkuntza zelan geratzen da?

Gaitzok osatzeko ostatu bat egin eban Ursula Klemek Hanburgoko auzune dotore-aberats baten. Lenengoa izan da munduan, baiña laster agertu ziran beste batzuk be.

Lenengo urtean bertan bete-bete egin zan. Geiago ezin artzerañño.

Jakiña umeak olako ostatu baten eukita ez da txakur edo katu bateri jaten emotea.

Dirua bear da, diru aundia. Alan be, al izan eben guztiak eroan ebezan euren umeak.

Bost irakasle —gizon eta emakume— umeak zaintzeko. Udan ezezurte osoan egon oi da bete-beterik.

Igingarria da au. Non da umeekanako maitasuna? Non aitasun eta amatasun maitasuna? Askatasuna izatearren beste batzui leporatu umeen ardura, umeen ezkuntza? Ez al'da au naskagarria? Ez al'dau onek paganismo-usaiña?

Aitak eta amak lan egin bear dabela? Etxe-barrua itxi ta amak lentegi baten lan egin bear dauala? Ondo da. Ez gagoz orren aurka. Ori bai, askoz oba litzake amak euren etxe-barruko lanetan kardutzea, Zoritxarrez premiñak estutua ama asko doaz gaur egunean lantegietara. Edo aitaren irabaziak gitxi diralako edo ama alarguna dalako. Emakume asko doaz lantegira ogi-billa. Orretarako beste baten ardurari itzi bear umeak. Baiña askatasun aundigoa eukitearren... adiskide-lagunakin ibiltarren, egun osoa edo osoak mendian ESKI-egiten... itxas-ertzean... ori ez... ori ez... ori ezin artu daiteke ontzat.

Ez da naiko umeak mundura ekartea. Zaindu egin bear dira. Ezi egin bear dira. Umeak gurasoenak dira ta gurasoen ardura da umeak zaindu ta ezitzea.

ZELAN ABERASTU

Baserritar bat egoan ilten;
seme bi alper eukazan,
eta semeok bizkortuteko,
auxe aitak asmau eban:
"Solo eder bat nik damotzuet,
t'ori erentzi guztian;
zuek aberats eingo zarie,
bitxi eder bat dau bertan".

Ardura aundiz ta neke askoz,
atxurran asi ziran, an.
Etzan aurkitu bitxi ederra,
astindutako lurtean.
Baña a lurra, ondo gertautu,

ereiteko, geratu zan.
Frutu ederra atara eben:
bateko, eun, an, soloan.

Olantxe geu be, sarri askotan
ez gara konturatuten.
Lan barik, ezin egin aberats,
lan egin bear da emen,
bai eskuz, baita buruaz, sendo.
Asi zaite lan egiten,
t'ikusiko zu zelan diruak
joaten yatzuzan geitzen.

EUSKERA ABERASTU

EZ NAGO BAKARRIK

Ikastolako mutiltxua zan;
amak ezikatu eban
Jaunaren eta zeruko gaien
t'elizara sarri joian.
Ikastaroko azken aldian,
azterketakaz ebillan.
Jolasketarik ez eban gure,
bakarrik, ikas, etxean.

Gure Eneko, au zan izena,
estu ta larri bizi zan.
Etxeko danak lo gozo eiten,
bera ikasten kuartuan.
Aita ta amak pentsatzen eben
Eneko zala oean,
baña mutilla arduraz egon,
ikas... ikas... bere gelan.

Alako baten, biotz urratuz,
astien da garratz negarrez:
"Neure erruz da, badakit, baña
pozteko ez dot inorbez.
Au bai gogorra bakardadea!
Augaitik nau atsekabez;
estutasunan lagunena billa,
nabil besoak zabalez."

Eta ara nun ikusten dauan
aurreko kapillatxuan,
leio txikitik, Sagrarioko
argi izpia, kiñuan.
"Oker nago ni, ez nau bakarrik,
or Jesus, ez dago lotan,
itxartuta dau, nire antzera,
ta gozo pentsatzen nigan."

Enekok inon egi zorrotza:
triste da bakardadea!
Edozeñentzat bildurgarria,
da, bakarrik, bizitzea.
Augaitik nai dau Kristok, elizan,
Berari lagun eitea.
Enekorentzat ta danentzat da,
pozgarri adiskidea.

IKUSIKO DOT

Gizonak zenbat larri daukazan
lurreko negar errian!
Erbestetuak gara guztiok,
bizi garala lurrean.
Agustin onak esaten eutson
Jaungoikoari sarritan:
"Zuretzat eñak eta pozik ez
Zugana eldu artean".

Zer balio dau amari esan
semea galtzen dauean:
"Zure semea il da, penarik
ez dau izango munduan"
Amak diñotso "Seme laztana
ez dot ikusko zeruan?"
"Ori inoz beez." Erantzun augaz
ama jausten da lurrean.

Edo alabak, gaztetxu dala
ama laztana galtzen dau.
Beretzat ama dana izan da:
ama zan eta enparau.
Ez dau ikusiko ama inoz be?
Ezin eroan samin au!
Orrela balitz beti legoke
negarrez egun eta gau.

Ama alabak ikusko dabe,
alkar betiko bizitzan.
Bizitza galdu ez da egiten,
aldatu baño, obean.
Itxaropena au da, gozoa,
danok doguna, barruan.
Zoriontsuak, ama alabak,
zerura zoazenean!

Au da aundia, arrigarria!
Gero asten da bizitza.
Oraingo poza edo samiña,
dana dogu eriotza.
Guztiak dabiltz atsegin billa,
ta lortzen dabe garratza.
Emengo gauzak emoten dabe
bizikerean arantza.

Gaztaroa nai, il barik bizi:
oneik ez dira ezkontzen.
Luzaro biziz, gazteak ezin,
adiñak gaitu ondatzen.
Beste bizitzan, dana bizitza;
gaztaroa ez da galtzen.
Zuk pozten nozu, poz betikoa,
zuri nago itxaroten!

EUSKERA ABERASTU

Esaldi oneik GAROA liburutik artuta dagoz.

“Aditu zituzten **bereak eta bi**” (81). (Ha oido su merecido)

“**A zan** guztien Iñazio Mariri **lepotik eldu bearra**”. (Todos querían abrazar a Ignacio María)

“**Zer zeukan zer joan** or barrura olako gizonak” (93)

“Utsetik gezurtegiraiño joateko ez zerate txarrak zuek” (94). (Ya valéis para inventar mentiras por nada)

“Gizon orren ibillera” (94) (Qué manera de andar la de ese hombre)

“Izketan **eramango zioten**, baiña ez lanean” (102) (La aventajarian en el hablar, pero no...)

“Juan Andrese **arlo aundiak zeuzkan** zegoan tokian” (103). (Era muy estimado en el puesto que ocupaba).

“Bakoitza bere zoroak bizi du” (105) (Cada loco con su tema).

“Aizerik ez dan urtean” (109). (Nunca).

“Noiz? Jaungoikoa zartu baiño len”. (109)

“**Aoa bete ortzekin** gelditu ziran” (143). (Con un palmo de narices).

“Nabarmenkeria baiño nabarmenago” (135). (Extravagante más que extravagante) (Desvergonzado más que...)

“Au gizonez dator! Au andrazkoz! (192)” (Cuántos hombres...)

“Isabelek ez dio Paulari **eramaten**” (197). (Isabel no vale más que...)

“Martin, **bestarik ezeko** ezkongaiia zan” (200) (Era soltero por necesidad, no voluntario)

“**Ezerez batean** egin oi dira argazkiak” (204) (Por una nonada...)

“Norbere **itza jatea**, ez da itxurazkoa” (217). (No cumplir lo prometido...)

“Arranearen albistea” (218). (Caramba con la noticia)

“Barruak ez dit agintzen” (222). (No me permite mi conciencia).

“Esanbearraren esanbearrez” (236). (Necesidad imperiosa de decir).

“Orixe da gizonaren beretasuna” (238). (Qué hombre tan tranquilo).

“Tokitara joan da” (241). (A buen sitio ha ido).

“Tokitan dago” (Está en el quinto pino).

“Guri zer zaigu?” (245). (A nosotros qué nos importa?).

“Korrika **orpoz ipurdi** doa” (254). (A todo correr).

“Ez ditu **anka makalak**” (254). (Tiene los pies ligeros).

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

ZER Bizkaieraz dogun aldizkari bakarra da.

ZER irakurteko erreza eta atsegintsua da.

ZER bizkaitarrentzat ulerterreza da.

ZER erriko euskereari laguntzeko egokia da.

ZER guztiok irakurri ta zabaldu bear dogu.

Egizu arpidedun barri bat.

Ekarri EUSKERAZALEAK'eri.

Ordez, liburu polit bat artuko dozu.

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.